

Kinpart⁶¹

www.hurtzaroikastola.eus

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2015eko
MARTXOA





Aurkibidea

Hurtzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	10
Hatzak bete lan	15
Inauteriak.....	19
Gu ere kazetari	34
Nahaste berraste.....	38

Kinpart⁶¹

www.hurtzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Hurtzaro ikastola
Elorrondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

hurtzaro@ikastola.eus

DISEINUA, MAKETAZIOA eta INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Agurra

Bigarren hiruhileko ekintza orokorra, parte hartzailea eta arrakastatsua Inauterien ospakizuna izaten dugu Haurtzaro Ikastolan, eta seguruenik, hori izango da momentu honetan gehien gogoratzen dugun ekintza; irudiak ikusi besterik ez dago hor atzean dagoen lana baloratzeko: taldeko ekintza, adostua, bateratua, koordinatua, eta batez ere, parte-hartzailea, ikasle eta irakasle guztiez gain, guraso ia gehienen parte hartzea bideratzen baitu.

Horrez gain, izan ditugu beste hainbat momentu aipagarri, eta horiek guztiak ale honetan jasotzea ezinezkoa denez, batzuk zuen esku jartzen ditugu, irakurle. Besteak beste:

- XXVII. Prosa eta Poesia lehiaketako parte hartzea
- Korrika 19
- Ikasleek landu dituzten proiektuak
- Eskola agenda 21
- Kaskarotenea ikastolarentzat DBH4en antolatutako ekimena
- Alozeko Basaburua ikastolarekin elkar-trukea.

Eta beste gai interesgarri asko.

Matrikulazio garaia ere hiruhilabeteko honetan izan da; familia berri batzuek ikastolaren aukera egin duzue eta lerro hauen bitartez ongi etorria eman nahi dizuegu, zuei ere, ikastola osatzen dugunon familia handira.

**Oporrak ongi igaro
eta Txinpart irakurriz
gozatu!**



Ibilaldiak eta ekintzak

Haur hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
HH 1	MARTXOAK 17	ERRETERIAKO AZOKARA	AZOKA EZAGUTU
HH 1-2-3	OTSAILAK 6	IHOTE FESTARI HASIERA	EUSKAL HERRIKO KULTURA EZAGUTU
HH 2-3	OTSAILAK 9	EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA	MUSIKA ADIERAZPEN ARTISTIKOA EZAGUTU, BALORATU, ENTZUTEKO ETA PARTE HARTZEKO NAHIA SENTITU
HH 1-2-3	OTSAILAK 13	INAUTERI FESTA IKASTOLAN	TALDE LANA, ANTOLAKETA, JENDAURREKO JARRERA, EMANALDIA AURRERA ATERA...
HH 2-3	HILERO	HERRIKO LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATU
HH 3	MARTXOA	OIARTZUNGO AUZOETARA IBILALDIAK	ERREKAK ETA ERAIKUNTZAK IKUSI

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 1. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 1	URTARRILAK 15	EKAIN BERRI (ZESTOA)	LEHEN GIZAKIEN GAIA LANDU
LH 1	URTARRILAK 29/30	"ELIKADURA OSASUNTSUA" TAILERRA	ONGI JATEAREN KONTZIENTZIAZIOA BULTZATU
LH 1	OTSAILAK 06	IHOTE FESTARI HASIERA	EUSKAL HERRIKO KULTURA EZAGUTU
LH 1	OTSAILAK 13	INAUTERI FESTA IKASTOLAN	TALDE LANA, ANTOLAKETA, JENDAURREKO JARRERA, EMANALDIA AURRERA ATERA...
LH 1	HILERO	HERRIKO LIBURUTEGIRA	IRAKURZALETASUNA BULTZATU

Lehen Hezkuntza 1. zikloa • 2. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 2	Urtarrilak 27	Planetariora	"Unibertsoa" gaia sakondu
LH 2	Otsailak 06	Ihote festari hasiera	Euskal Herriko kultura ezagutu
LH 2	Otsailak 13	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera atera...
LH 2	Martxoak 10	La Casa del Café (Ugaldetxon)	Produktu baten ekoizpena behatu
LH 2	Hilero	Herriko liburutegira	Irakurzaletasuna bultzatu

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 3. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 3	Otsailak 4	Santa Ageda kantari	Euskal kultura ezagutu
LH 3	Otsailak 6	Ihote festari hasiera	Euskal Herriko kultura ezagutu
LH 3	Otsailak 13	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera atera...

Lehen Hezkuntza 2. zikloa • 4. maila			
MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 4	Urtarrilak 21	Kirol egokitua, jarduerak	Txanela 3. unitateko proiektua
LH 4	Urtarrilak 23	Mimo y Pantomima emanaldia	Txanela Lengua Castellanako proiektua
LH 4	Otsailak 4	Santa Ageda kantari	Euskal kultura ezagutu
LH 4	Otsailak 6	Ihote festari hasiera	Euskal Herriko kultura ezagutu
LH 4	Otsailak 13	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera atera...
LH 4	Martxoan	Ipuin kontaketa	Txanelako 4. unitateko proiektua



Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 5. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 5	Otsailak 4	Elizaldetik barrena eta zaharren egoitzan bukatu	Santa Ageda bezperako kantu-ospakizuna
LH 5	Otsailak 6	Oiartzungo ihoteetan hasiera emanez ikastolan ikuskizun baten bitartez eta "Barrunba"-ren atzetik joanez Plazara	2015eko Oiartzungo ihoteetan parte hartu
LH 5	Otsailak 13	Oiartzundik barrena desfilea eta ikastolako anfiteatroan ikuskizunean parte hartu	2015ko inauteriak ospatu

Lehen Hezkuntza 3. zikloa • 6. maila

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
LH 6	Urtarrilak 29 eta 30	Odol-emailekoekin tailerra (ikastolan)	Zirkulazio aparatuari eta transplantei buruzko informazioa bildu
LH 6	Otsailak 4	Elizalde auzora, Santa Ageda	Euskal kultura ezagutu
LH 6	Otsailak 6	Ihote festari hasiera	Euskal Herriko kultura ezagutu
LH 6	Otsailak 13	Inauteri festa ikastolan	Talde lana, antolaketa, jendaurreko jarrera, emanaldia aurrera atera...

DBH 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON / ZER	HELBURUA
DBH1	Urtarril-otsailetan	Eskola agenda 21, ikastolan	Gaia: Elikadura jasangarria. Motibazio saioa
	Urtarrilak 29	Antzerki emanaldia, ikastolan	Hautazko tailerrean egindako lanaren aurkezpena
	Otsailak 4	Santa Ageda, ikastolan eta Elizalde auzoan	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 13	Inauteriak, ikastolan eta Elizalde auzoan	
	Martxoan, Aste Santuaren aurretik.	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen prebentzio programa / TABAKOA - ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa
DBH2	Urtarril-otsailetan	Eskola agenda 21, ikastolan	Gaia: Elikadura jasangarria. Motibazio saioa
	Urtarrilak 20-21-22	Heziketa afektibo-sexuala, ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
	Otsailak 4	Santa Ageda, Altzibar auzoan	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 13	Inauteriak, ikastolan eta Elizalde auzoan	
	Otsailak 25	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen prebentzio programa / ALKOHOLA - ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa
DBH3	Urtarril-otsailetan	Eskola agenda 21, ikastolan	Gaia: Elikadura jasangarria. Motibazio saioa
	Otsailak 3-4-5	Heziketa afektibo-sexuala, ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
	Otsailak 4	Santa Ageda, Iturriotz auzoan	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
DBH4	Urtarril-otsailetan	Eskola agenda 21, ikastolan	Gaia: Elikadura jasangarria. Motibazio saioa
	Urtarrilak 27-28-29	Heziketa afektibo-sexuala, ikastolan	Itsaso Carrizo sexologoak zuzendutako saioak
	Otsailak 24	Irudi Biziak, Irunen	Osasun heziketaren lanketa
	Otsailak 4	Santa Ageda, Ugaldetxo auzoan	Euskal kultura ezagutu eta euskal tradizioetan parte hartu
	Otsailak 13	Inauteriak, ikastolan eta Elizalde auzoan	
	Otsail-martxoetan	EKONOMIA eta ZERGAK ikastolan	Foru Aldundiak jarritako programa pilotua martxan
	Martxoak 3 eta 4	AGIPAD: Osasun Heziketa eta Drogamenpekotasunen prebentzio programa / POLIKONTSUMOA, ikastolan	Agipad eta Haurtzaro ikastolaren eskutik osasun heziketa



2014/2015 ikasturtea Eskola Agenda 21 ELIKADURA JASANGARRIA

ESKOLA AGENDA 21 ekimenaren barruan 14-15 ikasturteko gaia **ELIKADURA JASANGARRIA** da.

Horregatik, Lehen Hezkuntzako 2. zikloan proiektua aurrera eraman nahi izan genuen. Beraz, hasteko denok gauza bera ulertu behar genuen gai honen inguruan. Horregatik, LH 3. eta 4. mailako geletan, galdera honekin hasi ginen:

- **Zer da elikadura jasangarrია?**

Helburua AGENDA21ko aurtengo gaia denok ulertzea zen eta galderari erantzuten saiatu ginen.

Lehengo, gela bakoitzean bideo bat ikusi eta elkarrizketa bat ireki zen ea zer ulertzen genuen ELIKADURA JASANGARRIAZ azaltzeko.

Bideoan ageri ziren ideei nagusiak sakondu eta gela bakoitzak ideei nagusi horiek hitzetan jartzea erabaki genuen, Slogan gisa. Horrekin guztiarekin, eta gaia mundu mailakoa zenez, era honetan irudikatu genuen.

Miren eta Lidek LH2 zikloan izenean.





XXVII Prosa eta poesia lehiaketa

Haurtzaro Ikastolako 14 ikasleren lanak saritu dituzte Prosa eta Poesia lehiaketan. Euskarri digitalean argitaratuko dira lanak aurten ere.

Iazko abenduaren 20an, udaletxeko areto nagusian, banatu ziren XXVII. Prosa eta Poesia lehiaketako sariak. Banatutako 17 sarietatik Haurtzaro ikastolako ikasleek 14 eskuratu zituzten, prosa alorrean zortzi eta poesia sailean sei.

Sariak liburu eta ikasmaterialean gastatzeko bonotan banatu ziren DBH 3. maila arte, eta helduenei eskudirua

eman zieten. Gainera, lanak edizio digitalean argitaratuko dira.

Epaimahaia herriko literaturgintza eta euskalgintzako norbanako eta erakundeek osatu dute: Pello Añorga; Iñaki Arbelaiz; Intxixu AEK euskaltegia; Goiatz Labandibar; Ander Lizarralde; Aingeru Palomo eta Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea.



Prosa eta poesia lehiaketako irabazleak, epaimahaiko kideekin.

SARIDUNAK

PROSA

1. saila: Jurgi Arbelaiz Guridi eta Haizea Goñi Miguel
2. saila: Unax Landa de Marcos eta Araitx Ortega Urdanpilleta
3. saila: Beñat Albisu Belarra
4. saila: Yvonne Retegi Simo
5. saila: Lur Gaztelumendi Beristain eta Oihan Lopez Fraile

POESIA


3. saila: Eider Maya Sanzberro eta Lohizune Telletxea Delgado
4. saila: Markel Irastorza Zabalegi eta Izaro Telletxea Delgado
5. saila: Naroa Del Rio Mugerza eta Jokin Irastorza Zabalegi

Ikasleen idazmena eta irakurmena sustatzeko Udalak antolatzen duen lehiaketa hori gure proiektuan txertatua dugu, eta maila horietako ikasle guztiek hartzen dute parte. Lehenik, testu horien lanketa egiten dugu mailaz maila eta ondoren, ikasle bakoitzak lan bat egiten du lehiaketan aurkezteko.



Oiartzoko ekitaldi akademikoa

Ikasturte honetako Oiartzoko ekitaldi akademikoa abenduaren 28an ospatu zen Oreretako Niessen aretoan.



Ekitaldi horretan, 2013-14ko ekainean Batxillerra bukatu zuten Oiartzoko ikasleei, Haurtzaro ikastolan hasiak batzuk eta Orereta ikastolan besteak, diploma banatu zitzaion; Oiartzo Batxiler Ikastolan egin duten lana aitortzeko. Horrez gain, aurrera begira duten ibilbidean animatzeko, gurekin izan genuen Arkaitz Miner musikaria eta Orereta ikastolako ikasle ohia. Arkaitzek bere ikasle garaia gogoratu, profesionalki egindako bidea aurkeztu zuen.

Ekitaldian batxilergoa bukatu zuten ikasleetatik 54 ikaslek jaso zuten beren diploma. Gure zorionik beronenak guztiei!

ihoteak

Herriko usadio zaharrari helduz, aurtan “gure herriko IHOTE festa” haur eskolara ere ekarri dugu.

Horretarako, buru-belarri lanean jardun gara. Baina ez gu hezitzaileok bakarrik, gurasoak ere inplikatu zaizkigu eta, nola gainera! Beren haurrak zaku jantziarekin etortzeko gonbitea egin genien eta erantzuna paregabea izan da.

Zaku tela, oiha zatiak, pastorratza eta artilea hartu, ereduak ikusi eta Urmedin antolaturiko guraso tailerrean zein etxean, ilusio handiz josi dituzte asmo guztiak.





Eta otsaileko lehen ostiralean Urmendin lehen aldiz ihoteak ospatu ditugu. Guztiok zakua jantzi eta ohiko moduan festa-rako prest agertu ginen. Egun horretan, kristalaren beste aldeko paisaia elurrez zuritu bitartean, gelak txintzarri soinu eta kolore anitzez bete genituen guk.

Jakina denez, intxixuak ere ez ziren urruti ibili! Haur batzuk ez ziren berehalakoan gerturatu, baina beste batzuek, ordea, ederki pasa zuten haiekin jolasean! Hori bai, denok agertu genuen kantu eta dantzarako grina.



Dudarik gabe datozen urteetan jarraipena izango duen ospakizuna izango dugu! Beraz, ongi gorde zakuak ganbararen, datorren urtean berriro ere beharko ditugu eta!

*"Intxixu dantza in tzazu,
intzazu dantza intxixu..."*

*Garbiñe Ugalde
Urmendi haur eskolako irakaslea*



Euskararen
TXOKOA

EUSKARAZ BIZI; EUSKAHALDUN

Bigarren hiruhileko honetan, gure artean hain arrakastatsua izan ohi den “Jostatu euskaraz, euskararekin jostatu” kanpainan murgildu gara martxoaren 9tik 27ra bitartean. Kanpaina honetan zehar ahozkotasuna lantzea izan da gure helburu nagusia, jolasetan elkar animatzeko erabiltzen diren esamolde jatorrak indartuz: eman gogor!, eutsi goiari!... Aurten indar berezia jarri nahi izan dugu kanpainaren helburuan, eta esamolde nahiz hitzekin hainbat kartel egin ditugu Eskuttuneko ikasleen laguntzaz.





Girotzeko, 19. KORRIKAko *Denok Korrikara!* abestia aukeratu dugu. Izan ere, hamabostaldiaren barruan Korrika ospatu dugu. *Euskahaldun* dio aurtengo Korrikako leloak, euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako. Amets Arzallusek aurreko Korrikaren amaieran “Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da

izanen” zioen. “Herri hau euskaraz pentsatzen ahal dugu, edo ezin dugu pentsatu”, berretsiko genuke orain: euskahaldundu gaitzen.

Euskaldun eta euskaltzale guztiok osatzen dugu Euskal Herria, Euskararen Herria. Eta horixe aldarrikatu nahi dugu: guztion artean, auzolanean eta elkarlanean, lortu ahal dugula **euskaraz biziko** den herria, euskalakariz osatutako herria.



eta nahia ala da. Euskahaldun

Lelo horrexekin hasi zen, martxoaren 19an Korrika, Urepelen eta martxoaren 29an bukatuko da, Bilbon. Bitarte horretan ekintza dezente antolatu dira herrian eta horietan parte hartzen aritu gara: Korrika ttikian, Korrika gaztean...

Oiartzundik martxoaren 21ean pasatu zen. Eguerdiko 12:30ak aieka, sartu zen Errenteriatik eta Irun alderantz abiatu. Ikastolari egokitutako kilometroan, Eskutunekoek eraman zuten lekukoa eta jendetza gaitza elkartu ginen euskararen alde egiteko. Hemendik aurrera ere, horretan jarraitzeko ez zaigu indarrik falta. Izango duzue gure berri!

OIARTZUNDIK ALOZERA, ALOZETIK OIARTZUNERAT (2)

Azkeneko Txinpart alian aitatu genizuen “Zazpiak bat” eguna Oiartzunen ospatu zenin, LH2. zikloko ikaslik Alozeko Basaburu ikastolakuk izautu zittuztela. Ordutik hainbat e-posta biali dizkiote elkarri, eta ben euskara zoragarriaz gozatzeko, hementzute lhotien inguruan biali dutena. Gue hizkera erra da, miño egiari zor, bena ere ez da makala, alajainkua!

Arresti hon,

Esker mila züen hilabetekariarentako. Gük ere aldizkari bat egiten dügü. Igorriko deiziegü ürrantzean. Aldizkariaren barnen Atharratzeko barrikadak eta ikastolako gaüza hanitx ezariko dügü. Bakantzetako ebalüaketen egiten hasi gira. Barantailaren 13an Sohütako ikastolalat joanen gira. Han ihauteak ospatüko dütügü. Goizan joküak eginen dütügü. Eta arrestiritan dantzatüko dügü.

Esker mila orano eta espero arra ikusiko girela.

Alozeko ikastolako 3. zikloko haurrak.

Basabürua eta Haurtzaro Ikastolako harremanean, lhoteak tarteko, ikasleek euskara euskalkien bitartez aberaste-ko aukera aparta izan dute. Eta artikulua honen bitartez, baita guk ere.





Kaixoo kaixoo!!

Hemen ga berriz'e Kuadrillategikuk, ba! Topea ta gogotsu gainea! Talde oso handiya izaten jarraitzen dugu, iya denak jarraitzen dugu ta, biño hasierako motibaziyaekin jarraitzen dugu! Aupa gu!

2014a bukatzeko afaya in genun ta afayan ondorengo festa re etzen falta izan! Hau dantza pilla in genuna! Erki pasa genun! Urtia bukatzeko egun ezin hobia! Mundiala!

Bino hua bukatu zen ta 2015a hasi bezela, nahizta egualdiyak ez digun gehiegi lagundu, ekintza desberdinak itten attu ga: Talde berriyak, karaokia, masaje tailerra, zinia, jolasak, eskalada... Inauteritan e mozerro festa in genun: Gure musika aparato berriya hartu (bai! Musika aparato berriya dugu!) ta desfilea, jolasak ta txokolatada in genittun! Par errak bota genittun!

Ta hemendik aurreakuk'e ate joka ttugu ta pozez gaude hoik'e itteko: Asteburu pasa (100 gaztetik gora... ikaragarriya!), beste herritako Kuadrillategiko partaidikin Kuadrillategi festa, Korrika... ta oporretatik bueltan iya egualdiya portatzen den ta tenperatura atseginak aprobetxatuz irteerak ta kanpoko ekintzak itten ttugun! Hau gogua!!!

Oangoz besteik ez! Ongi ongi segi ta gotu: Euskaraz aittu!

**Aupa Txinpart,
aupa Kuadrillategi
ta aupa gu!!**





HH1

INDIARRAK IKASTOLAN

3 URTEKO NESKA-MUTIKOOK
INAUTERI HAUTAN "ONEIDA ETA
AMERIN" INDIO TXIKIEN IPUINA
KONTATU GENUEN. BEREN BIZITZAZ
ERE ASKO IKASI GENUEN: NOLAKO
ETXEAK DITUZTEN, DANTZA
EGITEKO MODUA ETA KANTAK ERE
BAI. HAINBESTE GUSTATU ZITZAIGUN
INDIOZ MOZORROTZEA ERABAKI
GENUEN.

OSO ONDO PASA GENUEN ETA POZIK
ABESTU GENUEN:

"JON BRAUN INDIO TXIKI BAT ZEN"...





HH2

HAURTZARO IKASTOLA

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN EGOITZAN

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOARI ESKER,
HAURROK MUSIKAREN MUNDUAN MURGILDU
GARA.

HELBURUAK ZIREN MUSIKA ADIERAZPEN
ARTISTIKOA EZAGUTZEA ETA BALORATZEA,
ENTZUTEA ETA PARTE HARTZEKO NAHIA
SENTITZEA ETA ENTZUTEKO MODU APROPOS
ETA ARDURATSU BAT GARATZEA. HORRETARAKO,
BI PIANO JOLE ETA AKTORE BATEN ESKUTIK
"GALDUTAKO MUSIKAREN BILA" IBILTZEKO
ABENTURA BIZI IZAN DUGU.

IKASLEOK KONTZERTU HONETAN GOZATU EGIN
DUGU.






AURTEN IKASTOLAN IHOTEAK OSPATU DITUGU. INTXIXUAK ETA SORGINAK KATAXULOTIK JAITSI BAINO LEHEN, GU ERE SORGIN ETA INTXIXU BILAKATU GINEN. HORRETARAKO, KARETA ARRUNT POLITAK EGIN GENITUEN, ETA HORRELA HASI GINEN INAUTERIE TAKO PRESTATZEN. OSTIRALEAN BERRIZ, ZAKUAK ETA TXAPELAK JANTZITA GEUNDELA, IKASTOLAKO BESTE KIDEEKIN BATERA SORGINEI ONGI ETORRI FESTA EGIN GENIEN. BERTAN EDABE MAGIKOA PRESTATU ZUTEN, ETA GERO BURRUNBA EGINEZ PLAZARA IGO GINEN. INTXIXUAK ETORRI BITARTEAN, TXOKOLATE BEROA EDANEZ HOTZARI AURRE EGIN GENION. ZE EGUN POLITAK PASA DITUGUN!





LEHEN GIZAKIEN PARE, PAREGABE!



KAIXO IRAKURLE! ORAIN ERE HEMEN GATOK GURE BERRI EMATERA...

DUELA GUTXI, LEHEN GIZAKIEN MUNDUAN BETE-BETEAN MURGILDU ETA EKAIN-BERRI HAITZULOAREN ERREPLIKA IKUSTEN EGON GINEN ZESTOAN. BERTAN, GARAI HARTAKO BIZITZAZ ZEIN BIZILEKUAZ ASKO-ASKO IKASI GENUEN ETA GIZAKI HAIK BEZALA ARITU GINEN, EHIZATZEN ZITUZTEN ANIMALIAK MARGOTZEN. HORREZ GAIN, GELAN ERE LEHEN GIZAKIEN BIZIMODUA ANTZEZTU DUGU. HAU DA HAU GOZAMENA!

LH1. MAILA



Inauteriak

2015



Partzuergoa



HH





LH1-2



LH 3-4






LH5-LH6



DBH 1-2-3






DBH4



Gurasoak



Aurkezleak



Zuzendaritza



Ihoteak





LH2

HAMAR, BDERATZI, ZORTZI, ZAZPI...

Oraingo honetan LH2. Milakaak espazioan murgildu gara.
 Telemak londer dugu gaia "unibertsoa" izan da, beraz, pasatzen
 eta, gero, gurea dugu ikasleek ezinika planeta eta izarrak.
 Aitzakia polita izan da Miraman Zientzia museoa bisitatzea.
 Baita planetariumean, egon gara eta espazientzi fratean
 nabigatu dugu gure eguzki sistemako planeta guztiak
 bisitatuaz. Bideia honetan izanorak adina gauza ikasi ditugu.








XANGAI XIANG XI,

TXINATARREKIN EDERKII

Primeran pasa dugu Txinaren gaiarekin. Gauza asko ikasi ditugu: antzinako dinastiak, txinatarrek asmatutako tresnak, mendiak, ohiturak... eta baita gaur egun duten arazo demografikoa eta bizimodua ere.

Baina bada gauza bat ikaragarri gustatu zaiguna, harrigarria iruditu zaigulako: Txinako harresi handia. Nola eraiki ote zuten, mendietan barrena, hain harresi luzea? Langile finak ziren txinatarrak... Baina gu ere oso langileak gara, eta begira nola apaindu genituen korridoreak!

Eta, nola ez, guk ere ospatu dugu txinatarren urte berria: ahuntzaren urtea. Ez dugu su festarik egin, baina igarkizunekin jolasean ibili gara, berak bezala.



Zenbat gustatzen zaigun munduan barrena bidaiatzea!

TXAI TXIE TXIPA!!



LH4

hatzak BETE LAN



MUGI GORPUTZA ETA IZAN ONTSA

Txanelako 3. unitateko “Mugi gorputza eta izan ontsa!” proiektuari bukaera emateko, kirol egokituaren saio bat antolatu genuen Maitane Toledo ikasle ohiaren laguntzarekin.

Maitanek honako antolaketa proposatu zuen.



Kirol Egokitua Saioa Haurtzaro Ikastola
(Maitane Toledo Lardiz)



FRONTOLA

1-BOCCIA: -Punteria jolasa -Pilota babestu -Boccia partida	2- BOLEI ESERIA: -10 paseen jolasa eserita -10 paseak + aldaera -Bolei eserita globoenkin	3- GOALBALL: -Pafuelitos itsua -Rondoa -Goalball partida
4- GURPILDUN AULKIA: -Erreleboak (sulkiazen eta baloiazen erabilerak) -Lapurren bila -“Saskibaloi” partidak		

Taldean antolamendua eta denboralizazioa:

Lehenengo txanda: 32 → 8ko 4 talde

Bigarren txanda: 31 → 8ko 3 talde eta 7ko bat

Posta bakoitzean 15'-20' artean egongo dira.

Saioaren ondoren berriz ikasle bakoitzak bere bizipenetik Maitaneri bere eskutitza idatzi zion.

Hemen adibide batzuk.

Maitane: zermaduz gaude
ni ondo, niri gehien gustatzen zaitena
gurpildun aukia izan da.
Niri lehen aldiz jolaseko eta ikas
dudalako ze gailu den oraindik
oso ondo sentitu naiz, gailu dela
konturatu naiz eta niri ikas dute
mola sentitzen dion gaitasuna
dutenak agur eta eskerrikaspe.

Kaisa Maitane:
Zermaduz gaude? N: ondo majo
ementee ikastolan.
Enketeak asko agin dugun gaitik.
Itzuen gustatu zait gehien egileak
eta leat sentitu nahazelako.
ikas: dut oso gogorra dela gaitasun
adibideak.
Gaitasuna mola lezala sentitu
naiz.
Buena gura etorriko erker harrera
agin dugun gaitik.



M. A.

Saioaren laburpentxoan bideoan ikusi ahal izateko hemen duzue eskaneatzeko QR kodea.





LOS DERECHOS DE LA INFANCIA


Gaztelaniako 3. unitatean munduko beste neska-mutilen egoeraz eta beharrezko dituzten eskubideaz lanean aritugara. Eta gure arteko baten idazlana ekarri dizuegu zuekin partekatzeko:

He tenido la oportunidad de ver cómo viven niños y niñas de mi edad en otro continente. Si yo hubiera nacido en Guatemala mi vida sería así:

Mi casa por fuera sería muy sencilla, no muy complicada. Seguramente, por dentro tendría tres dormitorios, un salón y parecido a una cocina pero quizá ni eso.

La escuela sería un cuarto con mesas, silla y una pizarra. El material que utilizaríamos sería un lápiz, una goma de borrar, una mochila y poco más. Las asignaturas serían las siguientes: matemática, idiomas, lectura y recreo.

Yo tendría muy pocos juguetes seguramente.



Tiempo para jugar sería en el recreo pero en casa muy poco tiempo seguramente.

La comida podría ser al día 3 veces para comer sería con las manos. Para beber tendría que controlar cuanto poco o un poquito más.

Para el aseo sería un agujero en el suelo.

A MÍ ME DAN MUCHA PENA LOS QUE VIVEN ASÍ, NO TIENEN CASI NADA Y SI YO HUBIERA NACIDO ALLÍ, ÉSTA SERÍA MI VIDA.

Garbiñe Pagadizabal
5. mailako ikaslea





**LH6. mailakoek gaztelaniako unitate hone-
tako lanketan honako filma ikusi dugu:**

"PLANTA CUARTA"

FITXA TEKNIKOA

España, 2003.

Iraupena: 100 minutu

Produkzioa: Boca a boca producciones

Zuzendaria: Antonio Mercero

Produktore exekutiboa: César Benítez

Produkzio zuzendaria: Emilio A. Pina

Gidoia: Albert Espinosa eta Antonio Mercero, Ignacio del Moralen laguntzarekin, Albert Espinosaren "Los Pelones", antzerki obran oinarritua.

Musika: Manuel Villalta

Muntaia: José María Biurrun

"Minbiziak hanka bat eta biriketako erdi bat kendu zidan, baina gauza asko eman zizkidan. Irakatsi zidan, bizitzeko borrokatzea merezi duela eta familia eta lagunak garrantzitsuak direla gaixotasuna gainditzeko". (Albert Espinosa)

Miguel Angel, Izan, Dani eta Jorge ospitaleko 4. solairuan (onkologia atalean) dauden nerabe batzuk dira. Testuinguru honetan "Los Pelones"-en egonaldia arintzeko adiskidetasuna eta taldearen garrantzia nabarmentzen da. Baina zentzu kolektiboarekin batera, bakoitzaren identitatea eta egoera berriaren aurrean erreakzionatzeko modu ezberdinak ageri dira: bakardadea, diagnostikoaren beldurra, oroitzapenak, kezak, emozioak... "Los Pelones"-ek bere halabeharra aldatzeko erabiltzen duen ezinbesteko indarra umorea da. Adiskidetasuna, taldean onartzea, nerabezaroan erabakigarria da, eta are gehiago ezinbestekoa 'bal-dar adina' barregarri, pijama eta lau hormen artean jasateko.

Pelikula ikusi ondoren gure artean aipatutako iritziak hauek dira:

- "Batzuetan tristura sentitu dut, pena ematen zidalako, baina poza ere bai. Bizitzeagatik, minbiziari aurre egiten saiatzen zirelako".
- "Gu ze ondo bizi garen, eta gaizki pasatzen duen zenbat jende dagoen eta horretaz ez garela konturatzeko ikasi dut".
- "Pelikula oso ondo dago. Gehien gustatu zaidana beraien bizitzeko gogoia izan da".
- "Pelikula oso polita iruditu zait. Alaitasunarekin eta beraien arteko laguntasuna eta elkartasunarekin



egiten diotelako aurre gaixotasunari. Edozein gaixotasun izanda ere bizitza aurrera doa eta bakardadean egotearekin ez dugula ezer lortuko".

- "Batzuetan triste sentitu naiz. Beti ospitalean eta gaixo egotea oso gogorra izan behar duelako".
- "Gaixo egoteak ez du esan nahi mundua bukatu dela eta aurre egiten saiatu behar da, gauzak egin ez gaixotasunean gehiegi pentsatu gabe".
- "Pelikula oso polita iruditu zait. Gehien gustatu zaidana, bihurrikeriak egiten zituzten momentua da. Gutxien gustatu zaidana, "Pepino" hiltzen denean beraien artean sortzen den egoera izan da".
- "Pelikula gustatu egin zait, oso polita. Bizitza normala dutela irudikatuz, bizitza disfrutatuz aurre egiten diote gaixotasunari".
- "Hasieran barregarria iruditu zait, baina gero beraien lekuan jarri naiz eta pena sentitu dut. "No somos cojos, somos cojonudos" esaten duten zatia izan da gehien gustatu zaidana".
- "Guk suerte handia dugula pentsatu dut ez dugulako gaixotasunik ez eta gorputzeko arazorik ere".
- "Oso interesgarria. Nola saiatzen diren zerbait lortzen. Eta lehenengoan ez bada gehiagotan saiatuz lortuko dela".
- "Niri pertsonalki asko gustatu zait. Gehien gustatu zaidana egunero irribarre batekin esnatzen direla izan da. Gutxien gustatu zaidana Pepino hiltzen den momentua".



hatzakBETE LAN

Bigarren Hezkuntza


DBH1

SENTIMENDUEN INBENTARIOA

SENTIMENDUAK EMOZIOAK


POZAK
HASERREAK
KEZKAK
AMORRUAK
TRISTURAK
LOTSAK
MAITEMINAK
GORROTOAK
...

Guztien arteko korapiloak
askatzea ez da beti erraza
izaten
eta batzuk ez dira sekula
askatzen
nire eguneroko honetan
guztiak ditut pilatzen
emozioz emozio bizitzea
zaidalako gustatzen.



PRESENTATION PICTURES

Bigarren ebaluazioan DBH1eko ikasleak "The Secrets of the Ocean" deritzon unitatearen laguntzaz itsasoak gordetzen dituen sekretuaz jabetu gara. Unitatea bukatzeko, gelakideen aurrean ikasitakoari buruzko aurkezpena egin dugu. Hona hemen argazki batzuk.



DBH2

La poesía

no es un cuento



LA NOCHE OSCURA

Tengo miedo de que les pase algo
a las personas que más quiero
porque son mi vida
porque sin ellas no soy nada.

Terror a los monstruos que salían en los libros
de cuando era pequeña
porque soñaba que estaban
debajo de mi cama, susurrándome
"ssssssssssss"

Temo cuando nuestras miradas dicen
que nuestra historia de amor es imposible,
porque uno sueña, pero el otro no le puede dar su amor
solo por tener algo diferente.

Me asusto cuando todo está oscuro,
porque siento que todo se ha terminado,
porque siento que estoy sola.

Tiemblo en los malos y buenos momentos
y siento cómo mi corazón late con fuerza
al estar a tu lado
"bum, bum, bum..."

EKHIÑE RIVAS

POEMAS AUTOBIOGRÁFICOS

Amo mis perfectas imperfecciones
Odio a las personas odiosas
Temo la oscuridad de mi alma
Me gusta llorar de felicidad
Me aburren las cosas cotidianas de la vida
Me siento abrumada por el futuro que me espera
He reído con las personas que me aman
He llorado con las personas que me odian
He olvidado las lágrimas derramadas.

LEIRE INTXAUSPE

¿Qué es poesía? ¿Y tú me lo preguntas?

Poesía... eres tú.

Horrela dio olerki ezagun batek. Gu, DBH 2. mailan, Lengua y literatura castellana arloan gai hori lantzen aritu gara, eta bide batez norbera ezagutzen, jakina baita olerkia norberaren barrutik, emozioetatik, sentimenduetatik... sor-tzen dela.



Tengo miedo
a la oscuridad,
a la sombra,
al frío viento.

Me aterrorizo con
las criaturas de la noche,
los animales que acechan en la oscuridad.

Me asusto con
el frío color de las estrellas,
la escasa luz de la Luna,
la inmensa oscuridad de la noche.

Tiemblo por
la noche oscura
que nunca acaba.

EKAIN LOPEZ

Amo la tranquilidad
Odio la ignorancia
Temo una vida aburrida
Me gusta que las piezas encajen
Me aburre la facilidad
Me siento reflexivo
He reído en compañía
He llorado en soledad
He olvidado la razón por la que debería llorar.

EKHI MENDIBIL



DBH3



Gaztelaniako "Pintar con palabras" izeneko unitatean, deskribapenak landu ditugu. Hemen duzue irakas-leak emandako irudi batetik sortu dudan testua:



BIENVENIDA A LA NATURALEZA

Una mujer de pelo rojizo está observando las dos preciosas cabañas de madera que se extienden frente a ella mientras camina, aliviada, por haber llegado por fin a su meta. Está cansada por la larga caminata y la dulce fragancia de cerezas que suele llevar, se ha ido mezclando con el olor a sudor fresco.

Siendo un cálido día de primavera, la ropa negra y el suave jersey polar no le dan más que un calor insostenible. Menos mal que ha traído su mochila azul con la cantimplora. Sus agotados pies avanzan por el suelo de piedrecitas redondas colocadas de forma que parecen pequeños azulejos naturales y le dan un toque muy rural al lugar. Sus ojos están llenos de alegría viendo pulular a las mariposas entre los arbustos del jardincito que se encuentra frente a una cabaña.

Se puede escuchar un leve zumbido de abejas y el incesante canto de los pajaritos, de vez en cuando, se oye algún mugido de una vaca a lo lejos. En el fondo, hay árboles que rodean la parte trasera de las casitas. Todo está tan lleno de naturaleza y calma que incluso los tejados de las propias casas están cubiertos de tierra, en la cual, crecen cientos de florecitas silvestres y hierbajos. Es un sitio especial, diferente a los demás, perfecto para pasar un plácido fin de semana o todo el tiempo que uno quiera.

Aiora Mancheño



DBH 3. mailan PLASTIKA ikasgaia lantzen da. Bigarren ebaluazioan ikasleak collage-aren munduan murgildu dira.

Obra bukatu ondoren, egindakoa txosten batean jasotzen da.

Hona hemen bi adibide:



SUFRIMENDUA

Egilea: Ane Pagadizabal



Motibazioa:

Ni collage hau egiten hasi nintzenean ez nekien zer egin. Ikas-kideei begiratzen nien eta denak gauza ezberdinak egiten ari ziren. Horregatik, pentsatzen jarri nintzen. Gauza berezi bat egin behar nuen, berezia eta espeziala.

Orduan aldizkari bat hartu eta lehenengo orrian jende beltzaren ugari ikusi nuen, momentu hartan pentsatu nuen beraien herrietan erabiltzen dituzten maskara moduko bat egitea eta horrelaxe inspiratu nintzen.

Adierazpena:

Nik collage honekin adierazi nahi izan dudana da errefuxiatu eremuetan bizi den jendearen egoera, hau da, beraien situazioan jarri nintzen, enpatiaz. Orduantxe zenbat sufritzen duten, ze gogorra den beraien bizitza eta zenbat ahalegin egiten dituzten aurrera jarraitzeko ohartu nintzen. Hori adierazteko egin dut maskara hori eta nahiko aurpegi serioa jarri diot sufrimendua adierazteko. Bestalde, atzea urdinez margotu dut gerra bukatu den seinale eta berak orain lasaiago daudela adierazteko, hots, "askatasuna" espresatzeko modu batean.

Materiala:

Collage hau egiteko honako material hauek erabili ditut: Lehenengo maskara egiteko kartulina beltza erabili dut, gero ilea egiteko artilea eta bekainak, berriz, kotoiaren bidez. Begiak hosto eta babarrun bidez egin ditut, sudurra makilatxo batekin eta ahoa berriz gatzarekin egin dut. Gainontzeko kartulina tenpera urdin bidez margotu dut, baina nahi nuen kolorea lortzeko tenperari ur apur bat bota diot, akuarela moduan gera zedin eta gero kotoiaren bidez margotu dut isipuren ordez.

Balorazioa:

Ni oso gustura geratu naiz collagearen emaitzarekin. Espresatu nahi izan dudana guztia espresatu dut eta nik uste jendeak ulertuko duela edo beste mota bateko interpretazioak egingo dituela. Niretzat hori beharrezkoa da edozein koadro, artelan... Hasieran ez nengoen oso ziur atzea zuriz utzi edo ez, baina urdinez margotu nuen eta behar zuen "toke" hura hartu zuen eta oso pozik geratu naiz. Edozeini gomendatuko nioke horrelako esperientzia bat bizitzera, hau da, collage bat egitea.



BIZITZAREN ZUHAITZA

Egilea:
Luka-Anton
De La Peña Posse.

Motibazioa:

Zirriborroan karratuak egiten hasi eta gero konturatu nintzen periodiko zatien antza zeukatela. Ondoren gainean zuhaitz bat margotzea etorri zitzaidan burura. Hortik aurrera momentuan etorri zitzaizkidan ideiak jarraituz bukatu dut collagea.

Adierazpena:

Nik collage honekin adierazi nahi izan dudana da naturak dena ematen digula eta horregatik ateratzen dira hainbat janari zuhaitzetik. Adibidez, atzeko periodiko zatiek esan nahi dute papera zuhaitzetatik datorrela, hostoetako kafea, txikleak, lurreko azukrea, aireko palomitak eta zuhaitz goiko irinak esan nahi du, nahiz eta ez diren lehenengotik horrela ateratzen; hori osatzeko "osagaiak" naturak ematen dizkigu.

Materiala:

- Kola urarekin nahastuta: Palomitak azukrea periodiko zatia eta irina pegatzeko
- Periodiko papera: Atzekoa egiteko.
- Komuneko papera: Palomitak azukrea eta irina egiteko.
- Kafea: Kafea egiteko.
- Hostoak: Hostoak egiteko.
- Aldizkari bat: Enborra egiteko
- Txikleak: Txikleak egiteko

Balorazioa:

Oso pozik geratu naiz nire lanarekin. Asko aldatu da hasierako zirriborrotik, baina onera izan da. Hasieran ez zitzaidan gustatzen baina azkenean "kolorea ematea lortu dut".



Somos alumnos/as de 4º de ESO.
En este último trimestre hemos trabajado el tema 'Las lenguas que nos rodean' y hemos descubierto algunas curiosidades que nos han sorprendido y queremos compartirlas con vosotros.

Sabías que...



- ... existen un total de 6.912 idiomas alrededor de todo el mundo, según el compendio Ethnologue (el mayor inventario de lenguas del planeta). Pues, sólo 35 están disponibles en twitter y uno de ellos es el euskera. Además, el euskera en Wikipedia contiene 204.000 artículos -el doble que el griego moderno- por lo que ostenta la posición 34 de entre las más utilizadas, por delante de lenguas estatales oficiales de la Unión Europea.
- ... el euskera convivió con el íbero, el galo, el etrusco y el púnico hace 3 mil años y después de que los romanos impusieran su lengua, inesperadamente el euskera consiguió sobrevivir.
- ... por influencia del euskera las palabras latinas que comenzaban por "F" inicial pasaron a ser mudas en castellano, por ejemplo Farina > Harina; Filius > Hijo; Ferosus > Hermoso; Fierro > Hierro; Fabulare > Hablar; etc.
- ... el aranés es un dialecto del occitano (lengua no oficial del sur de Francia), que se habla en el valle de Arán y es cooficial junto con el castellano y el catalán. En cambio, el aragonés no es oficial en Aragón y solo lo utiliza el 5% de la población.
- ... en 1139 el reino de Portugal se declaró independiente por lo que la lengua gallega pasó a tener dos nombres, gallego o portugués, y su suerte a cada orilla del río Miño fue paralela a la suerte política del pueblo que la habla.
- ... los gallegos han creado un dominio cibernético para el gallego conocido como .gal; los vascos igualmente cuentan ya con el dominio .eus. Haurtzaro ikastola ha cambiado su dirección URL: www.haurtzaroikastola.eus
- ... en 1974 en Asturias se creó un movimiento sociocultural llamado Surdimientu para apoyar al asturiano. Gracias a su labor se han eliminado los prejuicios lingüísticos que durante mucho tiempo han perdurado en la sociedad asturiana.
- ... la Real Academia Española fue fundada en 1713 por iniciativa del marqués de Villena. Euskaltzaindia, sin embargo, se fundó en 1919. El oiartzuarra Manuel Lekuona fue presidente de la misma entre los años 1967-1970.
- ... en la población de Oiartzun además del euskera se hablan lenguas maternas procedentes de 48 nacionalidades diferentes, tales como: Bangladesh, Gambia, Ucrania, Japón...
- ... las lenguas menos habladas son tres: la Taushiro (Perú), la Tanema (Islas Salomón) y la Kaixana (Brasil). Estos idiomas cuentan con el asombroso número de hablantes de "uno". Sí, tan solo una persona. Se trata de lenguas que se encuentran en peligro de extinción, ya sea por desuso, por sustitución de alguna otra lengua, o por la desaparición de la tribu que lo hablaba.
- ... en Francia se hablan 6 idiomas: el euskera, el occitano, el catalán, el francés, el corso y el bretón, pero solo el francés es oficial. Esta lengua es además oficial en 22 países por lo que la convierte en la 3ª lengua empleada en las relaciones internacionales.
- ... en la provincia China de Hunan, existía una lengua muy curiosa llamada nushu, utilizada exclusivamente por mujeres. Se da la circunstancia de que la última persona que hablaba esta lengua falleció hace 4 años, por lo que oficialmente se ha extinguido.





DBH4

Arteko lanak

Arte irakasgaian ikasleek Transferra izeneko proiektua aurrera eraman dute. Garapena bost ataletan banatzen da:

- Lehenbizi, irudi eta eslogana sortu.
- Gero, ordenagailuz gauzatu eta koloreetan orri berezietan inprimatu.
- Ondoren, plantxa erabiliz kamiseta batean itsatsi.
- Azkenaurreko pausoa, triptiko batean egindako lanaren justifikazioa idatziz jaso.
- Bukatzeko, gelan aurkeztu.

Hona hemen lau lan:

“Libre bizi, borrokatu”

Nik, nire transferra horrela bideratzea erabaki dut, askatasuna islatu nahi nuelako, hau da, inor ez da inoren txotxongiloa, askeak gara. Horrez gain, inoiz ez dugula etsi behar ere azaleratu nahi dut. Zerbait lortu nahi dugunean eta lehenengo saiakeran lortzen ez dugunean, behin eta berriz saiatu, lortu arte, etsiz gero, ez dugu ezer lortzen.

Udane Altuna
DBH 4A

Letra mota:
Letra mota hau aukeratu dut, itxura alaia duelako.
Kolore zuria jarri diot kamixeta beltza delako eta kontrastea egiteko.

Eskuburdinak:
Eskuburdinak sutan jarri ditut askatasuna aldarrikatzeko.

Esaldia:
Esaldi hori aukeratu dut, nire gustuko musika talde bateko abesti baten zati bat delako, eta entzun orduko berarekin geratu nintzelako, atentzioa eman zidan.



Tximeleta:
Tximeleta jartzea erabaki dut, niri alaitasuna eta lasaitasuna transmititzen didan animalia bat delako, eta hori aldarrikatu nahi dudalako.

Koloreak:
Kolore hauek aukeratu ditut, kamixeta beltza delako eta kontraste polita egiten duelako, nire ustez bai behintzat.

ZUZEN IBILTZEA ASPERGARRIA DELAKO

Nik lelo hau aukeratu dut beti artaldea jarraitu behar dugula esaten digutelako. Nik ez dut esan nahi honekin dena zilegi denik, baizik eta gizarteak zer esango duen gehiegi ez pentsatzeko, bakoitzak osatu behar baitu bere ibilbidea bizitzan. Hau nola azaldu ez nekienez, nire pasio batekin lotu nahi izan dut, rallyekin zehatz esateko. Adibide garbiena da: bide bera egiten dute kotxe guztiek helburu berarekin baina modu ezberdinez.

Beñat Ibargoyen
DBH 4B

Leloa hitz
larriz jarri dut ongi ikusteko hau dela kamisetaren zati garrantzitsua

Argazki
hauek aukeratu ditut rallyetan aterata daudelako eta denetan gurutzatzen ari direlako

Arriskuaren seinalea jarri dut askok arriskutsua ikusten dutelako besteak bezala ez izatea eta gainera argi ikusten da kotxearekin eta rallyekin zerikusia duela





I Love Skateboarding

Nik lelo hau aukera dut adierazteko nire zaletasun bat dela irudian irudikatzen dena. Azpialdean nire izen-abizenak jarri ditut, nik egin dudala erakusteko. Goian ezker aldean elementuko ikurra jarri dut, zurian ondo kontrastatzeko ikurrak. Bihotza skate table hautsi batekin adierazi dut, kolore gorrian polita geratzeko eta nabarmentzeko.

Lander Jimeno
DBH 4C

Kamiseta txuri batean ezarriko dut argazkia, gehiago nabarmentzeko eta argazkian jendea gehiago arreta jaritzeko eta toke polita emateko.

Skater profesional baten argazkia jarri dut, asko gustatzen zaidalako bera ibiltzen den modua skatean eta oso ona delako. Nyjah Huston izena du eta 10 urterekin profesionala zen.

Bihotza kolore gorriz irudikatu dut ondo geratzeko. Baita ere bihotz forma edukitzeko skate taula hautsi bat erabili da eta nire ikuspuntutik ederki geratu da.

Marka onetako ikurra ere ezarri dut, Nyjah Huston en patrozinatzailea delako. Kolore zurian jarri dut irudian gehiago nabarmentzeko eta gehiago osatzeko. Bukatzeko gustura geratu naiz kolore eta irudiarekin.

I love skaterboarding ezarri dut skatea nire zaletasun bat delako, eta oso gustukoa dudalako kirol hau. Kolore beltzez jarri dut gehiago ikusteko eta skate boarding ere kolore berberaz jarri dut toke positiboa ematen diolako.

Azpialdean eskuinean, nire-izen abizenak jarri ditut, nik egin dudala ondo-ondo erakusteko. Lander kolore beltzez jarri dut eta Jimeno kolore moreaz. Puntu hoberenean kokatu dut eta gainera ondo ikusten da.



BERDINAK GARA GURE EZBERDINTASUNEAN

Maialen Lekuona DBH 4C

GAIA: Denak leku berean bizi gara eta, nahiz eta itxura edo izaera ezberdina eduki, denok elkar errespetatu behar dugu.

HELBURUA: Denok elkar errespetatzea.

TIPOGRAFIA: Courier New, letra tipoa aukeratu dut, letraren itxura denak ezberdina daukatelako.

IRUDI BERDEA: Berdea aukeratu dut, kamisetan gehiago nabaritzeko eta alaia delako.

LOREAK: Lore ezberdinak aukeratu ditut, itxura ezberdina irudikatzeko.

ATZEKO ALDE BELTZA: Kolore beltza aukeratu dut, letra zuria gehiago nabaritzeko.

LETRA TXURIA: Kamisetan gehiago kontrastatzeko eta atentzio gehiago deitzeko erabili dut.

KAMIXETA: Beltza erabiliko dut, argazkia eta letrarekin gehiago kontrastatzeko.

Zer egin energia ez-berriztagarrien gehiegizko erabilera ekiditeko?

Energia iturrien erabilera, batez ere energia ez-berriztagarriena, arazo larria ari da bilakatzen gaur egun. Honek ondorio benetan jasanezinak ekar ditzake gure ingurumen eta osasunean eta horrela jarraitzen badugu, gure Lur planeta suntsitzera ere iritsi gaitezke.

Nire iritziz, arazo honen kausa nagusia atmosferara gas kutsakorrek igortzea da. Izan ere, erregai fosilek CO₂ gas kantitate handiak isurtzen dituzte, eta honen ondorioz, hainbat fenomeno gertatzen dira; berotegi-efektua, esaterako. Egia da energia iturri hauen bitartez energia asko lortzen dela, baina erabili ahala, epe luze edo ertainean agortu egiten dira; baliabidea berriztaezinak dira, alegia.

Beste arrazoi nagusietako bat da, istripuren bat gertatuz gero, ingurugiroa suntsitu eta animalietan (gizakia barne) eragitea. Askatutako erradioaktibitateak animalien geneetan eragiten ditu aldaketak, deformazioak eta bestelako gaixotasunak sortuz. Adibide garbia Txernobilgo istripua da. Bertako zentral nuklearreko laugarren erreaktoreak sua hartu zuen, eta horrek era-

gindako hodei erradioaktibo kutsakorrek Europako zenbait lurralde ukitu zituen eta izugarrizko osasun arazoak sortu.

Arazo honen aurrean, batetik, energia berriztagarrien erabilera handiagotu beharko litzateke, baliabide naturalen aprobetxamendua dakartelako eta agortezinak edo oso ugariak direlako. Bestetik, gizakiaren energia kontsumoa murriztu beharko litzateke, energia ez-berriztagarrien beharra ez sentitzeko.

Bukatzeko, arazo honen aurrean neurri zehatzak hartu behar direla ondoriozta dezaket. Bestela, gure planetaren ekosistemak suntsitu eta naturan ikaragarriko aldaketak eragingo ditugu eta hondamendia ekarri.

Izena: Aitor Leonet


Arloa: Euskara

Gela: D.B.H. 4B

Data: 2015-01-12



ESKEMA





Eskola Agenda 21 ELIKADURA JASANGARRIA: diagnostikoa



Aurreko Txinpart alean azaldu bezala, aurten, Agenda21en programaren barruan "Elikadura Jasangarria" lantzen ari gara. Azken asteetan, DBHko etapan, ikasleon hainbat ohitura ezagutzeko asmoz beren DIAGNOSTIKOA egin dugu. Emaitzak jasotakoan beraiekin partekatuz aztertu genituen. Eta, honelako ondorio eta hausnarketetara iritsi ziren:

Gure DBH-2. zikloko ikasleek 2/3ak ongi eta patxadaz gosaltzen dute, baina, adi, gainontzeko 1/3ak, ordea, ez du behar bezala gosaltzen. Bestalde, ziklo honetako erdiak hamaiketako (ogitartekoa) ekartzen du eta 1/4ak fruta ale bat jaten du. Azkenik, jantokia erabiltzen duten ikasle gehienak oso gustura daude.

Bestalde, Elikadura Jasangarria kontzeptuarekin erlazioatutako "Elikadura Eskubidea" eta "Elikagaien subirotasuna" aztertzeko Naturaren Zientzietako irakasgaiaren ikusitako bi bideoetatik DBH3ko ikaslea den Josu Ibarguenek honelako hausnarketa bidali digu:

"Nahiz eta denentzako adina janari egon, ondo banatzen ez denez, gaur egun, munduan jende asko gosez hitzen da. Arrazoia da batzuetan hartutako erabaki ekonomikoak, politikoek eragindako injustizia soziala.... Injustizia sozialaren barruan, emakumeak dira gehien marjinatuak direnak, lurrak landu arren, gose gehiena pairatzen dutenak.

Errealitate gordin honi aurre egiteko irtenbideen artean, Elikagai Subirotasunaren aldeko mugimenduetatik bidera daitekeela uste dut; protagonistei lurrak eskaini, eta landatu nahi dutena erabakitzen utzi eta merkatu arauak baldintzatu gabe, libre lan ditzaten".





KASKAROTENEA AURRERA!

Badira hilabete batzuk Ziburuko Kaskarotenea ikastolak arazoak dituela jakin genuela.

Gertatu denaren inguruko interesak piztuta, informazioa biltzeari ekin genion eta baita lortu ere. Dirudieenez, duela pare bat urte inguru, Ziburuko Udalak erai-kin huts bat utzi zion ikastolari, bertako haurrek euskaraz ikasteko aukera izan zezaten. Baina bi urte horiek amaituta Udalarekin hitzartutako kontratua amaitzen zenez, haur horien gurasoek beste leku publiko bat eskatu zioten auzapezari. Udalaren erantzuna ezezkoa izan zen. Gurasoek nora joan ez zeukatenez, haurrak bertan mantentzeko hautua egin zuten.

Erabaki horrekin haserre, udalak auzitara eraman zituen gurasoak eta ikastola, eta, gainera, auzia irabazi zuen. Ondorioz, ikastolak 100 euroko isuna ordaindu beharra zion Udalari egoitza horretan pasatzen zuten egun bakoitzeko.

Gurasoek traba horren gainera, egoitza berean jarraitzeko hautua egin eta hor hasi ziren Euskal Herri oso-tik lehen elkartasun keinuak Ziburura bideratzen. Horren aurrean, udalaren haserre handitu zen eta isuna eguneko 400 eurotara igotzeko erabakia hartu zuen. Neurri berri hau gurasoek auzitara eraman zuten eta baita irabazi ere.

Udalak traba gehiago jartzeari ekin eta argindarra eta ura moztu zituen ikastolako eraikinean. Aipatu beharrik ez dago horrek haurrengan ekarri zuen mina.

Gurasoek haurrak linternekin bidali zituzten ikastolara, baina horretaz gain, obretako argindar generadore bat ere lortu zuten; bertan irauteko asmo garbia zuten.

Egoera honen erdian, urrian ikastolarekiko elkartasuna adierazteko manifestazio bat egin zen Ziburun. Arrakasta gaitza izan zuen eta milaka pertsona batu ginen bertan, milaka horien artean, artikulua sinatzen dugun Hautzaro Ikastolako hiru ikasleok.

Oiartzundik bertatik, autobus bat bete genuen guraso, gazte eta senideok.

Manifestazioan ez ezik, beste hainbat elkartasun ekin-tzatan ere parte hartu dugu DBH 4. mailako ikasleok. Alde batetik, ikasbidaiaarako diru bilketa moduan saltzen ditugun hamaiketakoetatik ateratzen dugun diruari uko egin genion abenduan. Hilabete osoko dirua Ziburuko ikastolara bideratzea erabaki genuen ikasle guztion artean. Guztira 500 euro atera genituen ekintza honekin.

Bestetik, gabonetan, jostailu salmentaren bitartez 200 euro gehiago batzea lortu genuen. Beraz, guztira, 700 euro bildu eta Ziburuko ikastolakoekin harremanetan jarri ginen.

Beren bisita goxoa jaso genuen egun berean, gure ekinbideak azaldu eta beren egoera lehen pertsonan ezagutzeko aukera izan genuen.


Ematen ari diren ereduaren adinako elkartasuna merezi dutelako, GUK ERE IKASTOLA BAT NAHI DUGU ZIBURUN!!!

Intza Errandonea
Uxue Oiarbide
Garazi Etxeberria

Letra-zopa 1




Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak.
Ondo gogoan hartu norabide guztietan
aurki daitezkeela.



Jeroglifikoak

1



Non busti da?

2



Nolakoa da Anaren senargaia?

Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Hautzaro Ikastolaren izenean



Oiartzo Ikastola. 2014ko promozioa



www.haurtzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARBITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@aiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



GEZAK S.C.
KINLODEGOTAKO KIDEAKETEN
GOSTON INTEGRAL PULBONATUEN



ELORSORO KIDEAKETA • Euzkadi, 24
T: 943 492 550 • M: 629 761 802
F: 943 490 591 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)